**2024KO APIRILAREN 18AN**
**EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Udalek izendaturiko ordezkariak**

| | |
|---|---|
| **DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA** | **LEHENDAKARIA** |

| **Ordezkariak** | **Udalak** |
|---|---|
| **IZARO ELORZA ARREGI** | **OÑATI** |
| **IÑIGO RUIZ BARRON** | **OÑATI** |
| **MARKEL AZKARGORTA CID** | **BERGARA** |
| **GARAZI ETXEBERRIA SAN MIGUEL** | **ARRASATE** |
| **KEPA URTEAGA GARCIA** | **ARRASATE** |
| **JASONE GIRALDO MENENDEZ** | **ARRASATE** |
| **MAIDER MORRAS AZPIAZU** | **ARRASATE** |
| **EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA** | **ESKORIATZA** |
| **ARITZ IGELTZ LAZKANO** | **ANTZUOLA** |
| **XABIER IGARTUA LOIDI** | **OÑATI** |
| **ION ALBIZU GONZALEZ** | **ARETXABALETA** |
| **IBON UNZETABARRENETXEA GALLEGO** | **ELGETA** |

**Etorri ez direnak:**
**- Gorka Artola Alberdi**
**- Ainhoa Lete Zabaleta**
**- Garikoitz Iturbe Etxebarria**

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze

Debagoieneko Mankomunitatearen egoitzan, 2024ko apirilaren 18an eguardiko 12:30etan, Mankomunitatea osatzen duten udalek izendaturiko **hamahiru ordezkari** bildu dira

**1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Inork ez du ezer esateko aurreko aktari buruz, beraz onartutzat ematen da.



LEIRE UCIN SORALUCE (1, guztira 2)
Idazkari-kontuhartzailea
Sinaduraren data: 10/05/2024
HASH: 8973b4ed3b9dd461e1f9784e9b5e7c9b

DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA (2, guztira 2)
Lehendakaria
Sinaduraren data: 10/05/2024
HASH: d7bffa837a48948aeb1920d9c37f9303

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 14

**<u>2.- Dekretuen berri ematea.</u>**

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

**<u>3.- 2023ko likidazioaren berri ematea.</u>**

Kontu-hartzaileak osatu duen Debagoieneko Mankomunitateko 2023ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 arau foraleko 49. artikuluak emandako eskumenak erabiliz, hau

<u>ERABAKI DUT</u>

<u>Lehena.- Bi mila eta hogeita biko Debagoieneko Mankomunitateko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:</u>

| | |
|---|---|
| 1.- Altxortegiko izakin likidoak, 2023.12.31n: | **4.373.413,08 €** |
| 2.- Kobratu gabeko saldoak. 2023.12.31n: | **1.399.383,62 €** |
| Ekitaldiko aurrekontuko zordunak | 1.242.786,07 € |
| Aurreko ekitaldietako aurrekontuko zordunak | 11.271,05 € |
| Aurrekontuz kanpoko zordunak: | 145.326,50 € |
| (-) Aplikatu gabeko kobrantzak: | 0,00 € |
| 3.-Ordaindu gabeko saldoak. 2023.12.31n: | **931.071,06 €** |
| Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: | 635.286,68 € |
| Sarreren aurrekontuko hartzekodunak: | 49,90 € |
| Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: | 295.734,48 € |
| Aplikatu gabeko ordainketak: | 0,00 € |
| 4.- Altxortegi-gerakin gordina (1+2-3): | **4.841.725,64 €** |
| 5.- Obra handietarako (Epele) hornidura: | 1.340.866,22 € |
| 6.- Saldo kobragaitzak: | 1.975,58 € |
| 7.- Altxortegi-gerakin likidoa (4-5-6): | **3.498.883,84 €** |
| 8.-Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina: | 1.776.821,57 € |
| 9.- Gastu orokorretarako altxortegi-gerakina: | **1.722.062,27 €** |
| 10.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza: | 93.118,74 € |
| 11.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurreko. eragiketen emaitza: | -8.430,46 € |
| 12.- Doiketa aurreko aurrekontu emaitza | 84.688,28 € |
| 13.- Doiketak, gerakinaren finantzatutako obligazioengatik: (2023ko kredituak 2022ko gerakinekin finantzatuak) | 243.497,96 € |
| 14.- Doiketa finantzaketa lotua duten gastu desbiderapenagatik: | 27.279,45 € |
| 15.- Aurrekontu-emaitza (12+13+14): | 355.465,69 € |
| 16.- Txerta daitezkeen kreditu-gerakinak: | 180.827,68 € |

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 14

17.- Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak: **1.541.234,59 €**

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, indarrean dagoen legedia betez.

**Hirugarrena.- Gobernu Juntari ebazpen honen berri ematea hurrengo bileran.**

Arrasaten
LEHENDAKARIA

Nire aurrean:
IDAZKARIA

**4.- 2024ko plantilla organikoaren behin betiko onarpena**

**GOBERNU JUNTARI IRIZPEN TXOSTENA**

Ikusirik 2024ko apirilaren 8an egindako Pertsonal Batzordean honako hau erabaki zela:

- 2023ko abenduaren 21eko Gobernu Juntaren bileran onartutako plantilla organikoaren aurka aurkeztutako alegazioa ez onartzea.

- 2024ko Plantilla organikoa behin betikoz onartzea.

**2024. URTEKO PLANTILA ORGANIKOA**

**A) KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK**

| POSTU - KOP | DEITURA | SAILKAPEN TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|---|---|---|---|

**GAIKUNTZA NAZIONALEKO FUNTZIONARIOAK**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Idazkari/kontu-hartzailea | A1 | Bete gabe | |

**ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA**

**Azpieskala Teknikoa**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Kontuhartzailetzako Teknikaria | A1 | Jabetzan | |



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 14

## Administrazio Azpieskala

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Administraria | C1 | Jabetzan | |
| 1 | Administraria | C1 | Jabetzan | |
| 1 | Administraria | C1 | Jabetzan | |
| 1 | Administraria | C1 | Jabetzan | (1) |

## ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA

### Zerbitzu Berezietako Azpieskala

Klasea: Lan bereziak

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 1 | Eskualde Agentziako Zerbitzu Arduraduna | A1 | Jabetzan | |
| 1 | Ingurumeneko Zerbitzu Arduraduna | A1 | Bete gabe | |
| 1 | Ingurugiro Zerbitzuko | | | |
| 1 | Ustiapen Arduraduna | A2 | Jabetzan | |
| 1 | Ingurumen Teknikaria | A2 | Jabetzan | |
| 1 | Ingurumen Teknikaria | A2 | Bete gabe | |
| 2 | Informatzaile Teknikari | A2 | Jabetzan | |
| 2 | Turismo Teknikari | A2 | Jabetzan | |
| 1 | Turismo Teknikai | A2 | Bete gabe | |
| 1 | Informatikaria | A2 | Jabetzan | |
| 1 | Euskara Teknikaria | A2 | Jabetzan | (1) |
| 1 | Prebentzio Teknikaria | A2 | Bete gabe | |
| 1 | Enplegu eta Garapeneko Agentea | A2 | Jabetzan | |
| 1 | Herri-bide zerbitzuen Arduraduna | C1 | Jabetzan | |
| 1 | Enpresa teknikaria | A2 | Bete gabe | |
| 1 | Enplegu eta sustapen teknikaria | A2 | Bete gabe | |
| 2 | Orientazioko eta gizarteratze- eta laneratze-teknikaria | A2 | Bete gabe | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|

## B) LAN KONTRATUKO LANGILEEI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK

### INGURUMENA

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Mekanikaria | C1 | Finkoa |
| 3 | Garbiguneko zaindaria | C2 | Finkoa |
| 1 | Garbiguneko zaindaria | C2 | Bete gabe |
| 1 | Txofer/langileburua | C1 | Finkoa |
| 1 | Txoferra | * | Finkoa |



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 14

| | | | |
|---|---|---|---|
| 8 | Txofer-zamaketari | * | Finkoa |
| 2 | Txofer-zamaketari | * | Bete gabe |
| 1 | Zamaketari | * | Finkoa |

(1) *Egun-erdiz*

Proposatzen zaio Gobernu Juntari

**LEHENA.** Plantilla organikoaren aurka aurkeztu den alegazioa ez onartzea.

**BIGARRENA.** 2024Ko Plantilla organikoa behin betikoz onartzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute:**

**LEHENA.** Plantilla organikoaren aurka aurkeztu den alegazioa ez onartzea.

**BIGARRENA.** 2024Ko Plantilla organikoa behin betikoz onartzea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**5.- Ekitaldiz kanpoko fakturak onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 14

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 5. puntua.**

**6.- <u>Mankomunitatea eratzen duten udalen ekarpenak INE-ko datuen arabera eguneratzea onartzea.</u>**

**GOBERNU JUNTARI IRIZPEN TXOSTENA**

Ikusirik 2023ko abenduaren 21eko Gobernu Juntan 2024. urterako aurrekontua onartu zela, Mankomunitatea osatzen duten udaletatik emandako biztanleriari dagokion datuen arabera.

Ikusirik Debagoieneko Mankomunitatearen Estatutuetan xedatzen dena

**35. artikulua.- Udal-ekarpenak**

1. Mankomunitateak zerbitzu bakoitzaren kontabilitate bereizia eramango du, baita ere aparte zehaztuz dagozkien instalazio eta amortizazio gastuak eta funtzionamendukoak.

2. Administrazioko gastu orokorrak Mankomunitatea osatzen duten Udal guztiek ordainduko dituzte Udal Erroldetan ofizialki erregistraturiko zuzenbidezko biztanle kopuruaren proportzioan, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaraturiko urteko azken berriztapenaren datuen arabera.

Hori horrela:

| Ekarpen arruntak (Eur) | Aurrekontuan | INE-ren arabera | Aldea |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 259.517,63 | 258.016,05 | -1.501,58 |
| ARETXABALETA | 975.549,81 | 975.941,96 | +392,15 |
| ARRASATE | 3.185.976,41 | 3.187.099,45 | +1.123,04 |
| BERGARA | 2.221.794,85 | 2.221.205,93 | -588,92 |
| ELGETA | 202.786,39 | 202.844,22 | +57,83 |
| ESKORIATZA | 548.861,06 | 549.076,54 | 215,48 |
| GATZAGA | 21.130,28 | 20.838,98 | -291,30 |
| OÑATI | 1.530.152,32 | 1.530.745,85 | +593,53 |
| GUZTIRA | 8.945.768,75 | 8.945.768,98 | 0,23 |

| Kapital ekarpenak (Eur) | Aurrekontuan | INE-ren arabera | Aldea |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 8.177,72 | 8.099,22 | -78,50 |
| ARETXABALETA | 77.888,85 | 77.909,37 | +20,52 |
| ARRASATE | 194.352,40 | 194.411,08 | +58,68 |
| BERGARA | 117.841,11 | 117.810,36 | -30,75 |
| ELGETA | 6.022,10 | 6.025,11 | +3,01 |
| ESKORIATZA | 51.986,14 | 51.997,39 | +11,25 |
| GATZAGA | 686,45 | 671,21 | -15,24 |
| OÑATI | 55.338,37 | 55.369,41 | +31,04 |
| GUZTIRA | 512.293,14 | 512.293,15 | 0,01 |



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 14

Proposatzen zaio Gobernu Juntari

**LEHENA.** 2024Ko udalen ekarpenak Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako urteko azken berriztapenaren datuen arabera eguneratzea.

**BIGARRENA.** Mankomunitatea osatzen duten Udalei erabakiaren berri ematea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen da:**

**LEHENA.** 2024Ko udalen ekarpenak Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako urteko azken berriztapenaren datuen arabera eguneratzea.

**BIGARRENA.** Mankomunitatea osatzen duten Udalei erabakiaren berri ematea.

**7.- Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen hainbat frakzio ezberdinak biltzeko hainbat edukietarako edukiontzien horniduraren kontratazioa dela eta, 1. lotea (10l ontzien hornidura) VERMICAN SOLUCIONES DE COMPOSTAJE, S.L. enpresari esleitzea onartzea.**

INGURUMEN BATZORDEAREN IRIZPEN PROPOSAMENA
Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen frakzio ezberdinak
biltzeko hainbat edukieratako edukiontzien hornidura. Esleipen proposamena
Exp.zkia: 166/2023
IKUSIRIK
Kontratuaren xedea: Ekoizle txiki eta handiek sortutako etxeko hondakinen frakzio ezberdinak biltzeko hainbat edukieratako edukiontzien hornidura.
Loteak:
- 1.lotea: 10l-ko ontziak.
- 2.lotea: 20l-ko ontziak.
- 3.lotea: 1.100l-ko ontziak.

Unitate sustatzailea: Ingurumen Zerbitzua.
Kontratu mota: Honidura kontratua.
Esleipena egiteko bidea eta modua: Prozedura irekia eta ohiko tramitazioa.
Baldintza orriak: Baldintza Agiri Administratiboak eta Teknikoak.
Araudi aplikagarria:

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 14

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Erregelamendua.
2. Administrazio baldintza zehatzen orriak.

“A” gutun-azalaren irekiera:
2024.01.22an kontratazio mahaik irekitako “A” gutun-azalaren aktak honela dio:

Honako enpresa hauek aurkeztu dituzte proposamenak, loteka:

1 Lotea: 10 litroko edukiontziak

- Entidad Maya, S.L.
- Vermican Soluciones de Compostaje, S.L.
- ID Waste Sociedad Limitada

2 Lotea: 20 litroko edukiontziak

- Entidad Maya, S.L.
- Vermican Soluciones de Compostaje, S.L.

3 Lotea: 1000 litroko kontenedoreak

- Entidad Maya, S.L.
- Contenur, S.L.
- Sulo Iberica, S.A.
- Jcoplastic Ibercia 2000, S.L.

Enpresa guztiak aurkeztu dute DEUC dokumentua eta Lizitazioaren baldintzak sinatuta, Vermican Soluciones de Compostaje S.L., izan ezik. Hori horrela, enpresa horri 3 eguneko epea eskaintzen zaio dokumentua sinatuta aurkezteko, eta hurrengo egunean aurkezten du.

Jcoplastic Iberica 2000, S.L. enpresaren eskaintza EZ DA ONARTZEN: A Artxiboan aurkezten ditu DEUC, Memoria eta Eskaintza ekonomikoa, gainontzeko artxiboetan aurkeztu beharrekoak direnak.

“B” gutun-azalaren irekiera eta eskaintzen balorazio teknikoa (Ingurumen Zerbitzuko txostena):
2024.03.01ean kontratazio mahaiak irekitako “B” gutun-azalaren aktan honela jasotzen da:
 1. LOTEA: 10l-ko ontziak:
- ENTIDAD MAYA S.L. enpresa lizitaziotik kanpo uztea, Ingurumen Zerbitzuko txostenean
jasotako arrazoietan oinarrituz.
- Baloratutako beste bi eskaintzei esleitutako puntuazioa:
o ID WASTE S.L: 31,5 puntu.
o VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L.: 26,25 puntu.
 2. LOTEA: 20l-ko ontziak:
- ENTIDAD MAYA S.L. eta VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresak lizitaziotik kanpo uztea, Ingurumen Zerbitzuko txostenean jasotako arrazoietan oinarrituz.
- Ondorioz, 2.lotea (20l-ko ontzien hornidura) hutsik gelditu da.
 3. LOTEA: 1.100l-ko ontziak:
- CONTENUR S.L. enpresa lizitaziotik kanpo uztea, Ingurumen Zerbitzuko txostenean jasotako arrazoietan oinarrituz.
- Baloratutako beste bi eskaintzei esleitutako puntuazioa:



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 14

o ENTIDAD MAYA S.L.: 29,97 puntu.
o SULO IBÉRICA S.A.: 29 puntu.
“C” gutun-azalaren irekiera:
2024.03.05an kontratazio mahaiak irekitako “C” gutun-azalaren aktan honela jasotzen da:
 1. LOTEA: 10l-ko ontziak:

- ID WASTE: 3,80 Eur/unitateko + 0,7980 eur (BEZ %21)

- VERMICAN: 2,26 Eur/unitateko + 0,47 eur (BEZ %21)

Ondorioztatzen da VERMICAN enpresaren eskaintza “neurrigabea” dela

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan eta administrazio pleguetan xedatzen denaren arabera, Eskaintzak neurrigabeak kontsideratuko dira bi lizitatzaile lehiatzen direnean, beste eskaintza baino 20 ehuneko-unitate baino baxuago dena.

Hori horrela, **Vermican enpresari eskaintza neurrigabea justifikatzeko epea eman behar zaio, eta horren menpe gelditzen da 1. lotearen esleipena.**

** <u>3. LOTEA: 1.100l-ko ontziak:</u>**

**3 LOTEA (1000 litroko edukiontziak): Eskaintza ekonomikoa**

**- SULO IBÉRICA, S.A.: 177,85 Eur/unitateko + 37,35 eur (BEZ %21): 60 puntu**

**- ENTIDAD MAYA S.L.: 190 Eur/unitateko + 39,90 eur (BEZ %21): 42,09 puntu**

**Puntuazioa guztira:**

| | Balorazio teknikoa | Eskaintza ekonomikoa | **Guztira** |
|---|---|---|---|
| SULO IBERICA, S.A. | 29 | 60 | **89** |
| ENTIDAD MAYA, S.L. | 29,97 | 42,09 | **72,06** |

**Kontratazio mahaiaren proposamena da 3. lotea Sulo Iberica, S.A. enpresari esleitzea.**

**<u>Txostenak:</u>**
- Edukiontzien balorazio teknikoa. Ingurumen Zerbitzuko txostena.
- “A” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta.
- “B” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta.
- “C” gutun-azalaren irekiera – kontratazio mahaiaren akta
- VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresak aurkeztutako neurrigabeko
eskaintza justifikatzeko txostena.
- Idazkari-kontu hartzailearen txostena.

Kontratua esleitzeko eskuduntza:
Indarrean dagoen Debagoieneko Mankomunitateko Aurrekontu Exekuzio Arauaren 15.artikuluko 3.atalaren arabera, kontratu hau esleitzeko eskuduntza Mankomunitateko Gobernu Juntarena da.
Ingurumen Batzordeak 2024.04.08ko ohiko bilkuran adostutakoa:
2024.04.08ko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai zerrendako 2.puntuan, aho batez, ondorengoak adostu dituzte:



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 14

- 1.LOTEA (10l-ko edukiontziak): VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresari esleitzea.
- 2.LOTEA (20l-ko edukiontziak): (a) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duten enpresei jakinaraztea eta (b) 2.. LOTE honi dagokion 20l-ko ontzien hornidurarako lizitazio prozedura berria martxan jartzea.
- 3.LOTEA (1.100l-ko edukiontziak): SULO IBÉRICA S.A. enpresari esleitzea.

Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

LEHENA.- 1.LOTEA (10l-ko ontzien hornidura) VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresari esleitzea.
Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betikoz esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontuhartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.
BIGARRENA.-
(a) 2. LOTEA (20l-ko ontzien hornidura) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duten enpresei jakinaraztea.
(b) 2. LOTE honi dagokion 20l-ko ontzien hornidurarako lizitazio prozedura berria martxan jartzeko erabakia hartzea.
HIRUGARRENA.- 3.LOTEA (1.100l-ko ontzien hornidura) SULO IBÉRICA S.A. enpresari esleitzea.
Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betikoz esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontuhartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute:**

LEHENA.- 1.LOTEA (10l-ko ontzien hornidura) VERMICAN SOLUCIONES de COMPOSTAJE, S.L enpresari esleitzea.
Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betikoz esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontuhartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.
BIGARRENA.-
(a) 2. LOTEA (20l-ko ontzien hornidura) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duten enpresei jakinaraztea.
(b) 2. LOTE honi dagokion 20l-ko ontzien hornidurarako lizitazio prozedura berria martxan jartzeko erabakia hartzea.
HIRUGARRENA.- 3.LOTEA (1.100l-ko ontzien hornidura) SULO IBÉRICA S.A. enpresari esleitzea.



Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 14

Esleipen proposamen hau behin-behinekoa izango da, kontratua behin-betikoz esleitzeko esleipendun enpresak aurkeztu beharreko dokumentazio eta ziurtagiriak ontzat eman bitartean, idazkari-kontuhartzailearen txostenak zehaztutakoaren arabera.

**8.- Lotea (20l-ko ontzien hornidura) hutsik uztea eta lote honetara eskaintza aurkeztu duten enpresei jakinaraztea, eta 2. lote honi dagokion 20l-ko ontzien hornidurarako lizitazio prozedura berria martxan jartzeko erabakia hartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute gai ordeneko 8. puntua.**

**9.- 3. Lotea (1.100l-ko ontzien hornidura) SULO IBÉRICA S.A. enpresari esleitzea onartzea.**

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**Beraz, aho batez onartzen dute:**

**10.- Erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratuaren luzapena onartzea.**

**INGURUMEN BATZORDEAREN IRIZPEN PROPOSAMENA**

Erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua. Kontratista: EMAUS GIPUZKOA S.L.
Esp.zk: 35/2023

IKUSIRIK

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 14

Kontratuaren gaia, enpresa esleipenduna eta sinadura data:
Mankomunitateak, 2023/07/01ean erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko eta edukiontziak garbitzeko zerbitzu kontratua sinatu zuen EMAUS GIPUZKOA S.L. enpresarekin.
Kontratuaren iraupena:
Kontratu honen iraupena urtebetekoa zen, izenpetzen den datatik hasita, eta beste 3 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 4 urte bete arte (2027/07/01 arte).
Eskainitako zerbitzuaren egokitasuna:
Orain arte EMAUS GIPUZKOA S.L. enpresak erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko eta edukiontziak garbitzeko eskainitako zerbitzua egokia izan da, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren araberakoa.
Txostenak:
- Idazkariaren lege txostena.

Ingurumen Batzordeak 2024.04.08ko ohiko bilkuran adostutakoa:
2024.04.08ko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 3.puntuan, aho batez, erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko eta edukiontziak garbitzeko, EMAUS GIPUZKOA S.L. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua, beste urtebetez luzatzea adostu dute.
Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Kontratua beste urtebetez luzatzea:
Erabilitako arropa eta berrerabil daitezkeen tamaina txikiko objektuak gaika bildu eta kudeatzeko eta edukiontziak garbitzeko, EMAUS GIPUZKOA S.L. esleipendun enpresarekin sinatutako kontratua, beste urtebetez luzatzea, hau da, 2024.07.01tik 2025.07.01 arte.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Ondorioz, aho batez onartzen da gai ordeneko 10. puntua.

**11.- Etxeko hondakin organikoa biltzeko hainbat edukietako poltsa konpostagarrien hornidura kontratuaren luzapena onartzea.**

**INGURUMEN BATZORDEAREN IRIZPEN PROPOSAMENA**
Etxeko hondakin organikoa biltzeko hainbat edukietako poltsa konpostagarrien hornikuntza kontratua. Kontratistak: ID WASTE S.L. eta MOHEDA Y RAÑAL S.L.

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 14

Esp.zk: 87/2023
IKUSIRIK
Kontratuen gaia, enpresa esleipendunak eta sinadura data:
Mankomunitateak, 2023.07.01ean etxeko hondakin organikoa biltzeko hainbat edukietako poltsa konpostagarrien hornikuntza kontratuak sinatu zituen ID WASTE S.L. eta MOHEDA y RAÑAL S.L. enpresekin:
- ID WASTE S.L. enpresarekin 1.lotea (10l-ko poltsak), 2.lotea (40l-ko poltsak) eta 4.lotea (120lko
poltsak).
- MOHEDA y RAÑAL S.L. enpresarekin 3.lotea (60l-ko poltsak).
Kontratuaren iraupena:
Kontratu hauen haserako iraupena urtebetekoa izan da, izenpetu zen datatik hasita, eta beste urtebetez luzagarria, gehienez ere 2 urte bete arte (2025.07.01 arte).
Kontratua luzatzeko baldintzak:
Kontratu hau arautzen duen Administrazio Baldintza Zehatzen Orrien 3.puntuan (“Kontratuaren Iraupena eta hornidura entregatzeko epea”) honela dio:
*“Kontratua honek urtebeteko iraupen izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta gehienez ere urte bat luzatu ahal izango da. Luzapena nahitaezkoa da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazten bada”*

Eskainitako zerbitzuaren egokitasuna:
Orain arte ID WASTE S.L. eta MOHEDA y RAÑAL S.L. enpresek poltsa konpostagarriz hornitzeko kontratua modu egokian bete dute, berau arautzen duten Administrazio Baldintza Zehatzen, Baldintza Agiri Teknikoen eta Kontratuan jasotakoaren araberakoa.
Txostenak:
- Idazkariaren lege txostena.
Ingurumen Batzordeak 2024.04.08ko ohiko bilkuran adostutakoa:
2024.04.08ko ohiko bilkuran Ingurumen Batzordeko batzordekide guztiek, gai-zerrendako 4.puntuan, aho batez, etxeko hondakin organikoa biltzeko hainbat edukietako poltsa konpostagarrien hornikuntzarako ID WASTE S.L. eta MOHEDA y RAÑAL S.L. esleipendun enpresekin sinatutako kontratuak, beste urtebetez luzatzea adostu dute.
Aipatu guztia ikusirik, ondorengoa

PROPOSATZEN ZAIO GOBERNU JUNTARI

Kontratua beste urtebetez luzatzea:
Etxeko hondakin organikoa biltzeko hainbat edukietako poltsa konpostagarrien hornikuntzarako ID WASTE S.L. eta MOHEDA y RAÑAL S.L. esleipendun enpresekin sinatutako kontratuak, beste

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 14

Beraz, aho batez onartzen da gai ordenero 11. puntua.

**12.- Enpresa ekintzetako zentruko eskaerak onartzea:**

- Asier Rosado Saracibar ekintzaileari (Top-Cop/BTT) Arrasate 5-IM moduluan urte bateko luzapena ematea.

- Joseba Bergara Murueta-Goiena ekintzaileari (Komedus, S.L.) Arrasate 1-IM moduluan urte baterako luzapena ematea.
- Leire Gonzalez Gomez ekintzailearen (Psicologia zerbitzua) Arrasate 7-ZM moduluan baja onartzea.

Puntua bozkatzen dute eta hau da emaitza:

Alde (13): Kepa Urteaga, Xabier Igartua, Markel Azkargorta, Garazi Etxeberria, Ibon Unzetabarrenetxea, Jasone Giraldo, Edorta Zubizarreta, Dorleta Elkorobarrutia, Aritz Igeltz, Ion Albizu, Maider Morras, Izaro Elorza, Iñigo Ruiz.
Kontra: 0
Abstentzioa: 0

**13.- Galdera eskaerak.**

Ez dago.

Bilera bukatutzat ematen da 13:00etan, eta akta honetan jasotzen dira bertan hartutako erabakiak, dagozkion efektuetarako.

Arrasaten, 2024ko apirilaren 18an.

**Lehendakaria** **Idazkari-kontuhartzailea**

Baliozkotze Kod.: G75Y5636PDXCSHZATKNXMC6HC
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 14